

# Aldi baterako ezintasuna

PRESTAZIOAK



@administración  
electrónica



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN  
ESTATUKO IDAZKARITZA

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAREN  
INSTITUTU NAZIONALA

PRESTAZIOAK

# Aldi baterako ezintasuna





11. edizioa: 2017

Argitaratzailea: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (PUB034)eus

AOIZ: 271-17-121-3

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

<https://sede.seg-social.gob.es>

<http://publicacionesoficiales.boe.es>

## Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b> .....	4	<b>Kudeaketa eta kontrola</b>	
<b>ERREGIMEN OROKORRA</b>		Erakundeen eskumenak ABE	
Kontzeptua .....	5	kontuetan .....	13
Onuradunak eta betekizunak .....	5	Baja-agiri medikoa .....	14
Prestazio ekonomikoa .....	5	Bajako eta baja berresteko	
• Oinarri arautzailea .....	5	agiri medikoak .....	15
• Ehunekoa .....	7	Alta-agiri medikoa .....	17
• Aldi baterako ezintasuna-langabezia .....	7	<b>Sistema bereziak</b> .....	18
• Langabezia-aldi baterako ezintasuna .....	8	<b>ERREGIMEN BEREZIAK -</b>	
Prestazio-eskubidearen sorrera .....	8	<b>BEREZITASUNAK</b>	
Iraupena .....	8	Beren konturako langileen edo langile	
• Berriz gaixotzea .....	10	autonomoen erregimen berezia .....	19
Eskubidea iraungitzea .....	10	Ikatz-meatzaritzako erregimen	
Eskubidea galtzea edo etetea .....	11	berezia .....	23
Eskubidea aitortzea .....	11	<b>PRESTAZIOA IZAPIDETZEKO</b>	
Prestazioa ordaintzea .....	11	<b>BEHAR DIREN DOKUMENTUAK</b> .....	24
		<b>OINARRIZKO ARAUDIA</b> .....	26
		<b>GSIN-EN HELBIDE</b>	
		<b>PROBINTZIALAK</b> .....	29



## Aurkezpena

Aldi baterako ezintasunagatik ematen den prestazio ekonomikoak diru-sarrerarik eza estaltzen du noiz eta langileak, gaixotasun edo istripu baten ondorioz, ezin baitu lanik egin eta Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza jasotzen baitu.

Gizarte Segurantzaren sistemako erregimen orokorreko eta erregimen berezietako babes-ekintzaren barnean dago sartuta prestazio hori.

Liburuxka honen lehen zatia erregimen orokorrak ematen duen prestazioari buruzkoa da. GSINek kudeatzen dituen erregimen bereziei dagokienez, Erregimen Orokorren aldean erregimen bakoitzak dituen ezaugarri esanguratsuenak aipatzen dira.

Eskuliburu honetan dagoena baino informazio gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin (GSIN):

- Telefono-zenbaki honetara deituta:  
**901 16 65 65.**
- Interneten: [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)  
edo hemen: <https://sede.seg-social.gob.es/>
- Pertsonalki ere joan zaitezke, aurrez  
**901 10 65 70** telefonoan hitzordua eskatuta, GSINek Espainia osoan dituen arreta- eta argibide-zentroetako batera; bestela, idatziz jo dezakezu horietara.



Aldi baterako ezintasuna



## Kontzeptua

Aldi batean lan egiteko ezinduta dagoen eta Gizarte Segurantzako osasun-laguntza behar duen langilearen egoera da hori.

Hauek izan daitezke arrazoiak:

- Gaixotasun arrunta edota profesionala, baita istripua ere, lanekoa izan ala ez.
- Lanbide-gaixotasun baten behaketa-aldiak, lanean baja preskribatzen den kasuetan.

## Onuradunak

Gertaera eragilea jazo denean erregimen orokorrean sartutako pertsonak, afiliatuta eta altan edo altaren pareko egoeran daudenak; aldi baterako ezintasun (ABE) egoeran egon beharko dute, eta behar diren eskakizun guztiak bete.

Ezintasuna lan-istripuak (LI) edo lanbide-gaixotasunak (LG) eragina bada, langileak eskubide osoko afiliatutzat eta altan baleude bezala hartuko dira, nahiz eta enpresaburuak betebeharrak beteta eduki ez.

## Eskakizunak

**Kotizazio-aldi hau beteta izatea:**

- **Gaixotasun arrunta bada**, gertaera eragilea jazo aurreko 5 urteetan 180 egun.
- **Baldin eta ABEa istripu baten ondorioz (lanekoa zein lanetik kanpokoa) edo lanbide-gaixotasun baten ondorioz gertatzen bada, ez da aurreko kotizazio-aldirik exijituko.**

## Prestazio ekonomikoa

Prestazioa diru-laguntza bat izango da, eta zenbatekoa oinarri arautzailearen eta bertan aplikatzen diren ehunekoen arabera izango da:

### ■ Oinarri arautzailea

**Gaixotasun arruntagatik edo lanekoa ez den istripuagatik sortutako ABEa:**

- Zatiketa honen emaitza da: ABE egoera hasi den egunaren aurreko hilean langilek izandako kontingentzia arruntan kotizazio-oinarriaren zenbatekoa zati kotizazio horren egun-kopurua (zatitzaile hori, zehazki, 30 izango da, baldin eta langileak hileko soldata badu; 28, 29, 30 edo 31 ere izan liteke, eguneko soldata badu).



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

Hala eta guztiz ere, baldin eta ezintasuna hasi den hilabete berean sartu bada langilea enpresan, hilabete horretako kotizazio-oinarria hartuko da oinarri arautzaileztat, eta benetan kotizatutako egun-kopuruarekin zatituko da. Modu berean, baldin eta langilea aurreko hilabete natural osoan altan egon ez bada, kotizatutako egun-kopurua izango da zatitzailea.

### **Lan-istripu edo laneko gaixotasun batek sortutako ABEa:**

Oinarri arautzailea bi batugai gehituta lortzen da:

- Lanbide-kontingentziengatik kontuan hartzen den kotizazio-oinarria, aurreko hilekoa, eta aparteko ordurik gabea, zati aipatutako kotizazio horri dagokion egun-kopurua.
- Aurreko urte naturaleko aparteko orduen kotizazioa zati 365 egun.

### **Beste egoera batzuk:**

- Enplegu-aniztasunaren kasuan, enpresa bakoitzeko kotizazio-oinarrien batura izango da oinarri arautzailea, eta kotizaziorako indarrean dauden gehieneko mugak ezarriko dira.

- Artisten eta zezenketako profesionalen sektoreetan, ABEa eragin duen kontingentzia edozer dela ere, gertaera eragilearen aurreko hamabi hilabeteetako kotizazio-oinarrien batura zati 365 eginda lortuko da oinarri arautzailea; kotizazio-aldia urtebete baino laburragoa bada, berriz, egiaztatutako aldiko kotizazioaren batez bestekoa izango da oinarri arautzailea.

- Prestakuntzarako kontratuen edo ikastun-kontratuen/prestakuntzako langile ikertzaileen kasuan: baldin eta langileak prestakuntzarako kontratua edo ikastun-kontratua baldin badu, erregimen orokorreko kotizazio-oinarri minimoa izango da oinarri arautzailea.

Prestakuntzan dagoen langile ikertzailea bada, erregimen orokorreko 1. taldeko kotizazio-oinarri minimoa izango da oinarri arautzailea.

- Lanaldi partzialeko kontratua duten langileei dagokienez, eguneko oinarri arautzailea honela lortzen da: azken lan-altatik egiaztatuta dauden lanaldi partzialeko kotizazio-oinarrien batura, gehienez ere ezintasuna eragin duen kontingentzia baino hiru hilabete lehenagotik, zati epealdiko egun natural kopurua.



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

### ■ Ehunekoa

#### Gaixotasun arrunten eta lanekoak ez diren istripuen kasuan:

- % 60, baja hartu eta 4. egunetik 20.era arte (biak barne).
- % 75, 21, baja-egunetik aurrera.

#### Lan-istripuen (LI) eta lanbide-gaixotasunen (LG) kasuan:

- % 75, eskubidea sortzen den egunetik.

### ■ Aldi baterako ezintasuna-langabezia

- Baldin eta langileari, **kontingentzia arruntengatik** (gaixotasun arrunta edo lanekoa ez den istripua) ABE egoeran egonik, lan-kontratua iraungi bazaio:
  - ABE prestazioa jasoko du, langabeziagatik jasoko lukeen zenbateko berekoa, kontratua iraungi eta hurrengo egunetik aurrera, harik eta ABE egoera hori iraungi arte, ; egun horretatik aurrera, berriz, Estatuko Lan Zerbitzu Publikoaren langabezia-prestazioa jasoko du, baldin eta bete beharreko baldintzak betetzen baditu.

- Langabezia-prestazioa jasotzeko denbora-tartetik kenduko da, erabilitako denbora gisa, lan-kontratua iraungi den egunetik aurrera ABE egoeran emandako denbora.
- Langabeziako prestazioak kudeatzen dituen erakundeak egingo ditu Gizarte Segurantzako kotizazioak, eta bere gain hartuko erabilitzat deskontatzen den aldiagatik langileari dagokion ekarpen osoa.
- Baldin eta langileari, **kontingentzia profesionalengatik** (lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna) ABE egoeran egonik, kontratua iraungi bazaio:
  - GSINek edota mutualitateak ABE prestazioa ordaintzen jarraituko du, aurretik onartutako kopuru berean, harik eta ABEa iraungi arte.
  - Orduan, hala badagokio, legezko langabe-egoerara pasatuko da, eta Estatuko Lan Zerbitzu Publikoak langabezia-prestazioa emango dio, baldin eta horretarako baldintzak betetzen baditu.





## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

- Langabezia-prestazioa jasotzeko aldiari ez zaio kenduko ABE egoeran egondako denbora.

### ■ Langabezia-aldi baterako ezintasuna

Baldin eta langilea, langabeziagatik ematen den prestazio osoa jasotzen ari den bitartean, ABE egoerara pasatzen bada:

- **Baldin eta ABEa lan-kontratu baten indarraldian hasitako aurreko prozesu bateko berrizkatura bada:**

ABE prestazioa jasoko du, langabezia-prestazioaren kopuru berean. Langabezia-aldia amaitu eta ABEEan jarraituko balu, ABE prestazioa jasotzen jarraituko du; ordura arte jasotzen zuen langabezia-prestazioaren zenbateko berbera jasoko du.

- **ABEa ez bada lan-kontratu baten indarraldian hasitako aurreko prozesu bateko berrizkatura:**

Kontingentzia horren alderako prestazioa jasoko du langabezia-prestazioaren kopuru berean. Langabezia-aldia amaitzean ABE egoeran jarraituko balu, ABE prestazioa jasotzen jarraituko luke; prestazio horren zenbatekoa hainbat erabileratarako errenta-

adierazle publikoaren (IPREM) % 80 izango litzateke.

Bi kasuetako batean ere ez da langabezia-aldia luzatuko, eta langabezia-prestazioak ematen dituen erakunde kudeatzaileak jarraituko du Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzen.

### Prestazio-eskubidearen sorrera

- Gaixotasun arrunta edo lanekoa ez den istripua jazoz gero, laneko baja sortu eta 4. egunetik aurrera.
- Lanbide-gaixotasuna edota lan-istripua gertatuz gero, laneko baja sortu eta hurrengo egunetik aurrera; enpresaburuak ordaindu beharko du baja-egunean langileari dagokion soldata osoa.
- Greba edota lockout egunetan ez da laguntza jasotzeko eskubiderik sortuko.

### Iraupena

- Istripu edo gaixotasunen kasuan, eragilea edozer izanik ere:



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

365 egun; beste 180 egunez ere luza daiteke, bien bitartean sendagileak alta emango diola uste izanez gero.

- **Lanbide-gaixotasuna aitortzeko behaketa-aldian dagoenean:**

6 hilabete; beste 6 hilabetez ere luza daiteke, gaixotasuna aztertu eta diagnostikatzeko beharrezkoa dela joz gero.

ABEak eta, egokituz gero, luzapenak iraun bitartean, berrizkatura- eta behaketa-aldiak ere zenbatuko dira.

### **ABEa berariaz luzatzea**

- ABE aldia (365 egun) amaitutakoan, GSINek, ezintasun iraunkorra ebaluatzeko, kalifikatzeko eta berrikusteko eskumena duten organoen bitartez, hauetako bat aitortuko du, ebazpen bidez: berariazko luzapen-egoera (180 eguneko luzapena gehienez), ezintasun iraunkorraren espedientea irekiaraztea edo ABE prestazio ekonomikoaren alta medikoa ematea, sendatzeagatik edo GSINek deitutako osasun-azterketetara arrazoirik eman gabe ez agertzeagatik.

- Baldin eta laneko kontingentzien ondoriozko ABEen estaldura Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitate batekin hitzartu bada, mutualitateak berak proposatuko dio GSINi nola jardun. Hala, erakunde kudeatzaileak proposamena onartu duela ulertuko da, baldin eta proposamena jaso eta hurrengo 5 egunetan kontrakorik adierazten ez badu.
- ABEa luzatzeko, 545 egun bitarte kotizatu beharra dago.

### **ABEak eragindako ondorioen luzapena, gehieneko iraupen-epea pasatu delako:**

- Gehieneko aldia igaro delako (545 egun) amaitzen bada ABE egoera, hiru hilabete pasatu baino lehen ezinduaren egoera aztertu beharko da, dagokion ezintasun iraunkorraren maila zehazteko.
- Dena den, interesdunaren egoera klinikoak, sendatuko dela pentsatuta, kalifikazio hori atzeratzea gomendatzen badu, behar beste denbora atzeratuko da. Edonola ere, ezingo dira sekula 730 egun natural baino gehiago igaro, ABEaren egunak eta haren ondorioen luzapenarenak batuta.



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

- Hiru hilabeteko eta kalifikazioa atzeratzeko aldietan ez du kotizatzen betebeharririk izango.
- ABEaren ondorio ekonomikoen luzapen-egoeran egongo da langilea, harik eta ezintasun iraunkorra kalifikatzen den arte, iraungipenaren arrazoia hauetako bat denean: ezintasun iraunkorraren proposamena dakarren alta medikoa, GSINek ezintasun iraunkorraren espedientea irekitzeko erabakia hartzea edota 545 egun natural igarotzea.

Ezintasun iraunkorraren prestazio ekonomikoaren ondorioak bat etorriko dira erakunde kudeatzaileak ezintasun hori aitortzeko egiten duen ebazpenaren egunarekin, salbu eta prestazio hori langileak ABEaren luzapenagatik jasotzen zuena baino handiagoa denean; kasu horretan, ondorio horiek atzera joko dute, ABEa iraungi den egunaren biharamunera.

### ■ Berrizkaturak

Berrizkaturak direla joko da baldin eta, bi ABE prozesuren artean gaixotasun edota patologia bera egonik, ez bada 180 egunetik gorako aldirik igaro.

## Eskubidea iraungitzea

- *Baja medikotik 545 egun naturaleko gehieneko epea igaro delako.*

ABE eskubidea gehieneko aldia amaitzeagatik iraungi bada eta langileari medikuak alta eman badio ezintasun iraunkorra aitortu gabe, patologia beraren edo antzeko baten eraginez ABE egoera berriro abiarazteko, ezinbestekoa izango da lanean gutxienez 180 egun naturalean jardutea; bestela, berriz, GSINek baja ematea ABE prestazio ekonomikoen ondorio soiletarako, ezintasun iraunkorra ebaluatzeko, kalifikatzeko eta berrikusteko eskumena duten organoen bitartez.

- *Langileak alta medikoa jaso duelako, sendatu egin delako edo hobeto dagoelako, ohiko lana egiteko moduan.*
- *Langileak alta medikoa jaso duelako, ezintasun iraunkorra aitortu edo ez.*
- *GSINek ezintasun iraunkorraren espedientea irekitzeko erabakia hartu duelako.*
- *Onuradunari erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea aitortu diotelako.*



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

- *Heriotzagatik.*
- Onuraduna GSINeko edota Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitateko sendagileek ezarritako azterketa medikoen edozein deialditara arrazoirik gabe ez agertzeagatik.

### **Eskubidea galtzea edo etetea**

Laguntza-eskubidea ukatu, baliogabetu edo eten daiteke:

- Onuradunak laguntza jasotzeko edo mantentzeko iruzur egin badu.
- Norbere kontura edo besteren kontura lan egiteagatik.
- Laguntza-eskubidea eten egin daiteke onuradunak uko egiten badio agindutako tratamenduari batere arrazoirik gabe, edota tratamendua uzten badu.
- Erakunde kudeatzaileak langilea azterketa batera deitu badu eta hura ez bada jarritako datan bertaratzen, laguntza eten ahal izango zaio, azterketarako jarritako egunaren biharamunetik hasita; betiere 10 egun baliiodun izango ditu ez agertzearen arrazoiak emateko.

### **Eskubidea aitortzea**

Eskubidea aitortzea hauei dagokie:

- GSINi edo Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duen mutualitateari, baldin eta kontingentzia arruntak eta/edo profesionalak estaltzen baditu delako enpresan.
- Erregimen orokorraren kudeaketan borondatez laguntzeko baimena duten enpresei, arrazioa bat datorrenean enpreson kolaborazioari dagozkien kontingentziekin.

### **Prestazioa ordaintzea**

- Prestazioa ordaintzea GSINi, Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duen mutualitateari edota kudeaketa horretarako baimena duen enpresari dagokio.
- Prestazio ekonomikoa enpresak berak ordainduko du, soldaten maiztasun berean, Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren kudeaketan enpresek duten derrigorrezko lankidetzaren bertutez.



## Aldi baterako ezintasuna - Erregimen orokorra

GSINek alta medikoa adosten duen ebazpena aurkezten badu, 365 eguneko epea igarota, enpresek prestazioa ordaintzeko duten derrigorrezko lankidetzaren eten egingo da ebazpena ematen den egunean, eta dagokion laguntza erakunde kudeatzaileak edo mutualitate kolaboratzaileak ordainduko du zuzenean, ebazpen horren datatik interesatuari jakinarazi arteko aldiak. ABE prestazio ekonomikoen kudeaketan parte hartzen duten enpresak ere daude behartuta aipatutako epeari dagokion laguntza zuzenean ordaintzera.

- Gaixotasun arruntak edota lanekoak ez diren istripuen kasuetan, langileari prestazioa enpresaburuak ordainduko dio laneko bajaran 4. egunetik 15.era bitartean, biak barne; 16. baja-egunetik aurrera, berriz, ordainketaren ardurak GSINek edota Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duen mutualitateak hartuko du, nahiz eta ordainketa enpresak berak jarraituko duen egiten, delegatutako ordainketa gisa.
- Langilea langabezia egoteagatik ordaindutakoaren arabera prestazioak jasotzen ari denean eta ABE egoerara igarotzen denean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainduko dio ABE prestazioa;

delegatutako ordainketa bidez, harik eta langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea iraungi arte. Hortik aurrera, prestazioa GSINek hartuko du bere gain.

- **Ordainketa zuzeneko egoerak:**

Honako kasu hauetan, GSINek edota Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duen mutualitateak izango dute laguntza zuzenean ordaintzeko ardurak:

- Delegatutako ordainketa egitetik salbuetsitako erakundeak direnean.
- Patronalak betetzen ez duenean delegatutako ordainketa egiteko betebeharra.
- Hamar langile baino gutxiagoko enpresak izanik, 180 eguneko baino gehiagoan jarraian ordainduta daukatenean subsidioa, arazuz eskatzen badute.
- Lan-harremana iraungi edo eteten denean, langilea ABE egoeran egonik.
- Langabezia-prestazioaren jasotzaileek proposatutako txostena dela-eta, medikuak alta emanaz gero.
- ABE egoeran jarraitzean, langabezia-garaia iraungi ostean.



- ABEaren gehieneko epea (545 egun) gainditu eta ezintasun iraunkorra kalifikatzera iritsi aurretik egiten den ondorio ekonomikoen luzapenagatiko prestazioetan.
- Merkataritzako ordezkarien, zezenketako profesionalen edota artisten kasuan. Azken horien kasuan, kontratuak 30 egun baino gehiago irauten ez duenean.
- GSINen ebazpenaren bidez, ABEko 365 egunak igaro eta prestazioaren luzapenera igarotakoan, kontribuzio-mailako langabezia-hartzaileak salbu; azken kasu horretan, prestazioa Estatuko Lan Zerbitzu Publikoak (SEPE) abonatzen du delegatutako ordainketa bidez, langabezia agortu arte.
- Langile autonomoen erregimen bereziko langileen kasuan.
- Erregimen Orokorreko Sistema Berezietako langileen kasuan (nekazariak eta etxeko langileak).
- Erretiro partziala duten langileen kasuan.
- Ordaindutako eta aprobetxatu gabeko oporretan gertatutako ABEa.

## Erakundeen eskumenak ABE kontuetan

- **Hasi eta 365.** egunera iritsi arte, ABE egoera kontrolatzeko eskumena honako erakunde hauek edukiko dute:
  - Osasun Zerbitzu Publikoa; baja-, berrespen- eta alta-agiriak emateko.
  - GSIN; eragin guztiak dituen alta medikoa emateko eta ezintasun iraunkorraren espediente bati ekiteko.
  - Gizarte Segurantzaren kolaboratzaile diren mutualitateak; kontingentzia arrunten bidez sortutako lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek eragindako baja-, berrespen- eta alta-agiriak emateko.
  - Erakunde kolaboratzaileak (lan-istripu edo lanbide-gaixotasunen inguruko kontingentziak direla eta), baja-, berrespen- eta alta-agiriak emateko.
- **365 eguneko epea agortzen denean,** Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bakarrik izango du eskumena honako hauetarako:
  - Luzapen-egoera aitortzeko, gehienez ere beste 180 egunez.



## Kudeaketa eta kontrola - Aldi baterako ezintasuna

- Laneko ezintasun-espeditentia izapidetzen hasteko.
- Alta medikoa emateko; sendatzeagatik edo GSINek deitutako osasun-azterketetara arrazoirik gabe ez azaltzeagatik.
- Beste baja mediko bat emateko, alta eman eta 180 egunen barruan, patologia beraren edota antzeko baten eraginez.
- Lau ale beteko dira: jatorrizkoa, Gizarte Segurantzaren Osasun Zerbitzuen Ikuskaritzarako edota Osasun Zerbitzu Publikoetako tankerako erakunderako; gainerako hiru aleak, erakunde kudeatzailearentzat edota mutualitatearentzat, enpresarentzat eta langilearentzat.

- **Gizarte Segurantzaren erakunde kolaboratzaileko zerbitzu medikoak** (mutualitatea edo enpresa kolaboratzailea); baldin eta baja lan-istripu batek edo lanbide-gaixotasun batek sortu badu eta langileak kontingentzia horien babesa mutualitate batekin hitzartu duen enpresa batentzat lan egiten badu, edota, norbere konturako langilea izanik, mutualitate batekin hitzartuta badauka kontingentzia profesionalekin lotutako ABE prestazioaren estaldura. Kasu horietan ez da beharrezkoa izango baja-agiriaren kopiak Osasun Zerbitzu Publikoaren Osasungintza Ikuskaritzara bidaltzea, ezta erakunde kudeatzaileara ere.

## Baja-agiri medikoa

Kontingentzia arruntengatik edo profesionalengatik baja medikoa aitortzean, ABEari dagokion baja-agiri medikoa egingo da, langileari errekonozimendua egin eta berehala. Hauek egingo dute:

- **Osasun Sistema Publikoko medikuak;** kontingentzia arruntak direnean, baita kontingentzia profesionaletan ere, estaldura erakunde kudeatzaileak bere gain hartuta badauka (GSIN).

Agiri mediko horrek:

- Posible egiten ditu subsidio-eskubidea aitortzeko edota ukatzeko jarduerak.



## Kudeaketa eta kontrola - Aldi baterako ezintasuna

- GSINera atxikitako ikuskatzaile medikoak. Alta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bidalia denean, baja-agiria Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalera atxikitako ikuskatzaile medikoek bakarrik eman ahal izango dute, baldin eta baja medikoa alta eman eta 180 egun naturalen barruan gertatu bada, patologia beragatik edo antzeko batengatik.

### Bajako eta baja berresteko agiri medikoak

Kontingentzia arruntengatik edo profesionalengatik emandako bajako eta baja berresteko agiri medikoak honako hauek emango dituzte:

- **Osasun Sistema Publikoko medikuak;** kontingentzia arruntak direnean, baita kontingentzia profesioaletan ere, erakunde kudeatzaileak (GSIN) bere gain hartuta badauka estaldura. Agiriok luzatuko dira haiek ematen dituen medikuak esandako denbora-epetan. Helburu horietarako, lau prozesu-multzo finkatu dira:
  - a) Bost egun naturaletik behera iraungo dutela aurreikusten diren prozesuetan, osasun-zerbitzu publikoko medikuak

ekintza mediko berean emango ditu baja-agiria eta alta-agiria.

Medikuak, langileak lanerako gaitasuna noiz berreskuratuko duen aurreikusita, alta-data zehaztuko du agirian; alta-dataren berbera izan daiteke, edo haren ondoko hiru egun naturaletatik edozein.

Edonola ere, langileak ezarri zaion altadatan osasun-azterketa bat egiteko eska dezake, eta medikuak ikusten badu langilea oraindik ez dela lanerako gai, baja berresteko agiria eman dezake.

- b) 5 eta 30 egun natural bitarteko prozesuetan, osasun-zerbitzu publikoko medikuak baja-agiria emango du, eta bertan adieraziko du berrikuspen-azterketa medikoa egiteko aurreikusten duen data; edozein kasutan, data hori hasierako baja-dataren ondoko zazpi egun naturalen barruan egongo da. Berrikuspen-datan alta-agiria emango da, edo ezgaitasunak irauten badu, baja berresteko agiria. Berresteko lehen agiri horren ondoren, ondokoak -beharrezkoak direnean- elkarren artean gehienez ere hamalau egun naturaleko tartearekin emango dira.





## Kudeaketa eta kontrola - Aldi baterako ezintasuna

- c) 31 eta 60 egun natural bitarteko prozesuetan, osasun-zerbitzu publikoko medikuak baja-agiria emango du, eta bertan adieraziko du berrikuspen-azterketa medikoa egiteko aurreikusten duen data; edozein kasutan, data hori hasierako baja-dataren ondoko zazpi egun naturalen barruan egongo da, eta orduan, alta-agiria emango da edo, hala badagokio, baja berresteko agiria. Lehen berrespen-agiri horren ondoren, ondokoak -beharrezkoak direnean- elkarren artean gehienez ere hogeita zortzi egun naturaleko tartearekin emango dira.
- d) 61 egun natural edo gehiagoko prozesuetan, osasun-zerbitzu publikoko medikuak baja-agiria emango du, eta bertan adieraziko du berrikuspen-azterketa medikoa egiteko aurreikusten duen data; edozein kasutan, data hori hasierako baja-dataren ondoko hamalau egun naturalen barruan egongo da, eta orduan, alta-agiria emango da edo, hala badagokio, baja berresteko agiria. Berresteko lehen agiri horren ondoren, ondokoak -beharrezkoak direnean- elkarren artean gehienez ere hogeita hamabost egun naturaleko tartearekin emango dira.
- Osasun Zerbitzu Publikoak azken berrespen-agiria medikoa ematen duenean 365 egunak amaitu aurretik, interesatuari jakinaraziko dio errekonozimendu medikoa bere egoera kontrolatzeko eskumena duen erakunde kudeatzailearen esku geratuko dela, une horretatik aurrera. Egoera horren berri prozedura informatiko bidez emango zaio erakunde kudeatzaileari ere.
  - Aurreko lerrokadan adierazitako epea betetakoan, Osasun Zerbitzu Publikoek ez dute baja medikoa berrespen-agiririk bidaliko. Kasu horietan, erakunde kudeatzaileak egingo dizkio interesdunari, enpresari edota Osasun Zerbitzu Publikoari egin beharreko jakinarazpenak; baita, beharrezkoa izanez gero, erakunde kudeatzaileei eta Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari egin beharrekoak ere.
  - Lau ale ematen dira, baja-agirietan bezala.
- **Gizarte Segurantzaren erakunde kolaboratzailearen zerbitzu medikoak** (mutualitatea edo enpresa kolaboratzailea); baldin eta baja lan-istripu batek edo lanbide-gaixotasun batek sortu badu eta langileak lan



## Kudeaketa eta kontrola - Aldi baterako ezintasuna

egiten badu kontingentzia horien babesa lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitate batekin hitzartu duen enpresa batentzat, edo, norbere konturako langilea izanik, Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitate batekin hitzartuta badauka kontingentzia profesionalekin lotutako prestazioaren estaldura.

### Alta-agiri medikoa

- **Lehendabiziko 365 egunetan,** kontingentzia arruntek edota profesionalek eragindako prozesuetako alta-agiri medikoa honako hauek luzatu ahal izango dute:
  - **Osasun Zerbitzu Publikoko medikuak.** Langileari azterketa medikoa egingo zaio agiria eman aurretik; azterketa horren emaitzak eta medikuak alta emateko arazoak jaso beharko ditu agiriak. Lau ale ematen dira, baja-agirietan bezala.
  - **Gizarte Segurantzaren erakunde kolaboratzailearen zerbitzu medikoak** (mutualitatea edo enpresa kolaboratzailea); baldin eta baja lan-istripu batek edo lanbide-gaixotasun batek sortu badu eta langileek lan egiten badute kontingentzia horien babesa

mutualitate batekin hitzartu duen enpresa batentzat edo, norbere konturako langilea izanik, mutualitate batekin hitzartuta badauka kontingentzia profesionalekin lotutako ABE prestazioaren estaldura.

Kontingentzia profesionalekin lotutako ABE prozesuak direla-eta Gizarte Segurantzaren erakunde kolaboratzaileek emandako alta medikoen aurrean, 365 egunak agortu baino lehen, interesdunak ekin ahal izango dio erakunde kudeatzailearen aurrean alta hori berrikusteko prozedura berriari.

- **GSINera atxikitako ikuskatzaile medikoak.** Gizarte Segurantzaren sistemako ABE prozesuen gehieneko 365 eguneko iraupena bete arte, GSINek, erakunde horietara atxikitako ikuskatzaile medikoen bitartez, Gizarte Segurantzaren Osasun Zerbitzuak Ikuskatzeko Zerbitzuaren eskumen berak izango ditu, baita Osasun Zerbitzu Publikoaren pareko erakundearen eskumen berak ere, eragin guztiak dituen alta-agiri medikoa emateko.



## Erregimen orokorra - Sistema bereziak

- **ABE egoeraren 365** egunak igarota, GSIN izango da horietarako eskumena duen bakarra:
  - Luzapen-egoera aitortzeko, gehienez ere beste 180 egunez.
  - Ezintasun iraunkorraren espedientea izapidetzen hasteko.
  - Alta medikoa emateko; sendatzeagatik edo GSINek deitutako osasun-azterketetara arrazoirik gabe ez azaltzeagatik.

Interesduna ados ez balego ABE egoera eteten duen alta medikoarekin, alta horrekin ados ez dagoela adierazteko prozedurari ekin ahal izango dio(\*).

---

(\*) Ez da aplikatzen Kataluniako Autonomia Erkidegoan, Kataluniako Mediku Ebaluaketen Institutuko (ICAM) medikuek baitituzte GSINi dagozkion eskumenak.

### Sistema bereziak

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, etxeko langileei dagokien Gizarte Segurantzaren erregimen berezia eta Gizarte Segurantzaren nekazaritza-erregimen berezia Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartuko dira.

Sistema berezi bat sortuko da besteren konturako nekazaritza-langileentzat eta beste sistema berezi bat etxeko langileentzat.

Prestazioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren arau eta baldintza berberetan ematen dira, berezitasun hauek kontuan hartuta:

#### *Besteren konturako nekazaritza-langileentzako erregimen berezia*

- ABEaren babesa ez da aplikatzen jarduerarik gabeko garaietan.

*Prestazio ekonomikoaren oinarri arautzailea:*

- Gaixotasun arruntengatiko ABE egoeran, subsidioaren oinarri arautzailearen zenbatekoak ezingo du izan baja medikoaren aurreko 12 hilabeteetan lan egindako egunei dagokien hilabeteke batezbesteko kotizazio-oinarria baino handiagoa.



## *Prestazioa ordaintzea:*

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ordaintzen du zuzenean, edo bestela, Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitateak.

## *Etxeko langileentzako sistema berezia*

- Gaixotasun arruntengatik edo lanekoak ez diren istripuengatik lanean hartutako bajaren bederatzigarren egunean hasten da prestazioa jasotzen, eta enplegu-emaiaren arduraren 4. egunetik 8. egunera bitartean langileari baja ordaintzea, bi egun horiek barne.

## *Prestazioa ordaintzea:*

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ordaintzen du zuzenean, edo bestela, Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitateak.

## *Kontingentzia profesionalak:*

- Prestazioetara begira, erregimen orokorrak araututako erantzukizun-erregimena ez da aplikatuko.

**Prestazioa erregimen orokorreko luzapen, modu, termino eta baldintza berberetan ematen da, ondoren aipatuko ditugun berezitasunekin:**

## *Beren konturako langileen edo langile autonomoen erregimen berezia*

Prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, ezinbesteko baldintza da langileak bere arduraren zuzenekoak diren kotizazioen ordaintzaketan egunean izatea, nahiz eta prestazioa, kotizazioen elkarrekiko kontaktaren ondorioz, besteren konturako langileen erregimen batean aitortzen den.

Hori dela eta, eskatu ahal izango zaie aurreikusita dagoen mekanismoaren bitartez ordaintzeko kuotak, edozein dela ere interesdunak Gizarte Segurantzaren daukan erregimena, interesdunak ABE prestazioa jasotzerakoan.

## **Prestazioa jasotzeko aukera eta formalizazioa:**

- Kontingentzia arruntekin lotutako ABE prestazio ekonomikoaren estaldura derrigorrezkoa izango da, ezertan galarazi gabe hurrengo lerrokatetan aipatuko dena; hala, Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitate batekin formalizatu beharko



## Erregimen bereziak - Berezitasunak

da, eta mutualitate hori behartuta egongo da helburu horrekin egiten zaizkion atxikimendu-proposamen guztiak onartzera.

Edonola ere, langile autonomoek, baldin eta ABE prestazioa estalita badute Gizarte Segurantzaren sistemako beste erregimen batean zeinetan ere altan baitaude, beren borondatez heldu ahal izango diote, jarduera-aniztasunak irauten duen bitartean, prestazio horren estaldurari, beren konturako langileen edota langile autonomoen erregimen berezian, bai eta hari uko egin ere. Salbuespena ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak izango dira, bai eta, ezbehar-kopuru handiagoa dela medio, kontingentzia profesionalen estaldura nahitaez behar duten lanetan aritzen diren langile autonomoak ere.

- Mutualitate batekin formalizatu beharko da estaldura horren aldeko aukera, eta erregimen berezian alta egiteko garaian egin ahal izango da. Haren eraginak altarenarekin bat etorriko dira. Aukera hori baliatu ezean, langileek idatziz eskatu ahal izango dute babes, urtero urriaren 1a baino lehen. Hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Urte natural osoan eskatu ahal izango dira ABE prestazioaren estalduraren aldeko aukerak sortutako eskubideak eta betebeharrak, eta urtebeteko denbora-tarteetan luzatu ahal izango dira.

- Mutualitatea aldatuz gero, estaldura hori aukeratu izanaren edota hari uko egin izanaren ondorioak hurrengo urteko urtarrilaren lehen egunetik aurrera egongo dira indarrean; delako aukera edota uko egitea aurkeztu eta hurrengo urtean, hain zuzen.
- ABE prestazioaren estaldura derrigorrezko bilakatuko da, langileak haren babespean egon ala ez:
  - Langile autonomoen erregimen berezian jarduera-aniztasuna amaitzen denean, jarduera-aniztasuna amaitu eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera.
  - Ekonomikoki mendetasuna duten langile autonomoen baldintzak betetakoan edota ezbehar-kopuru handia izateko arriskua duen jarduera profesionalen bat egitean, baldintza horiek bildu diren edo jarduera profesionalari ekin zaion hilabeteko lehen egunetik aurrera.



## Erregimen bereziak - Berezitasunak

- Salbuespen gisa, borondatezko izaten jarraitzen du beren konturako nekazaritza-langileen erregimen berezian sartuta dauden beren konturako nekazaritza-langile autonomoentzat, honako berezitasun hauekin:
  - Baldin eta sistema berezi horretan sartzeko eskatzean langile autonomoen erregimen berezian sartuta badaude, ABE prestazioa nahitaez estalita egonik, estaldura horri uko egin ahal izango diote, eta aurkeztu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.
  - ABE estaldura baliatu ez duten langileak sistema berezi horretatik kanpo geratzen direnean, baina baldin eta langile autonomoen erregimen berezian altan jarraitzen badute jarduera berarekin edota beste batekin, prestazioaren estaldura nahitaezkoa izango da baztertzeko datatik aurrera, salbu eta hartarako eskubidea duten, Gizarte Segurantzaren beste erregimenen batean egindako jardueraren bat dela eta.

### **Jardueraren egoera aitortzea:**

- ABE egoeran dauden langileek adierazpen bat aurkeztu beharko dute GSINen aurrean

edo ABEaren kontingentzia adostu duen mutualitatearen aurrean, baja-dataren ondoko 15 egunen barruan eta eredu ofiziala erabilia, eta honako honen berri eman: merkataritza- edo industria-establezimendua edo bestelakoa kudeatuko duen pertsona, edo, hala badagokio, jardueraren behin-behineko etendura.

- ABE egoerak irauten duen bitartean, langileak sei hilabete behin adierazpen hori aurkeztu beharko du, hala eskatzen bazaio, arrisku-egoera hasten den egunetik hasita.
- Beren konturako nekazaritza-langileen erregimen bereziko langileei ez zaie aitortzen hori aurkeztaraziko, ez eta ekonomikoki mendetasuna duten langile autonomoei ere.

### **Prestazio ekonomikoaren oinarri arautzailea:**

Honela kalkulatu da: baja medikoa hartu aurreko hilabetean langileak izan duen kotizazio-oinarria zati 30. Oinarri hori prozesu guztian zehar izango da berdina, berrizkaturak barne, non eta interesdunak ez duen kotizazio-oinarri txikiagorik hautatzen; kasu horretan, azken hori hartuko da kontuan.



## Erregimen bereziak - Berezitasunak

### **Kontingentzia profesionalak:**

- Langile autonomoek beren borondatez hobetu ahal izango dute babes-ekintza, eta lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontingentzien babesa txertatu.
- 2008/1/1etik aurrera kontingentzia profesionalak estalita edukitzea beharrezkoa da honako hauentzat:
  - Ezbehar-kopuru handia izateko arriskua dagoen lan-jarduerak egiten dituzten autonomoak.
  - Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak
- ABE prestazioen estaldura formalizatutako erakunde kudeatzaile edo laguntzaile berberarekin gauzatu dira kontingentzia profesionalak ere.
- Kontingentzia profesionalen babesa hobetu nahi izanez gero, kontingentzia horientatik kotizatu egin beharko da; horretarako, kontingentzia arruntak kotizatzeko oinarria hartuko da kontuan, baita indarrean dauden hobarietarako tarifetan ezarritako ehunekoak ere.

### **ABEa eta jarduera etetea:**

#### ***Baldin eta langilea ABE egoeran zegoen bitartean gertatu bada babesa eragin duen kontingentzia:***

- ABE prestazioa jasotzen jarraituko du, jarduera uzteagatik emandako prestazioaren zenbateko berberarekin, harik eta iraungi arte; orduan, legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu, dagokion jarduera uzteagatik dagokion prestazio ekonomikoa jasotzen hasiko da. Halako kasuetan, jarduera uzteagatik emandako prestazioa jasotzeko denbora-tartetik kenduko zaio, erabilia baleuka bezala, jarduera utzi ondoan ABE egoeran eman duen denbora.

#### ***Baldin eta, jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoa jasotzen ari dela, langile autonomoa ABE egoeran ipintzen bada:***

- Jarduera utzi aurreko lege-egoeraren aurretik hasitako prozesu bateko berrizkatura izanez gero ABE hori, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioaren zenbateko bera jasoko du ABE prestazioan. Kasu horretan, eta langile autonomoak ABE egoeran jarraitzen badu behin amaituta jarduera uzteagatik jasotako prestazioarentzat hasiera batean ezarritako



## Erregimen bereziak - Berezitasunak

iraute-denbora, orduan ABE prestazioa jasotzen jarraituko du, ordura arte jasotzen duen zenbateko berberarekin.

- ABE egoera ez denean aurrez hasitako prozesu bateko berrizkatura, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioaren zenbateko bera jasoko du ABE prestazioan. Horrelakoetan, eta langile autonomoak ABE egoeran jarraitzen badu behin amaituta jarduera uzteagatik jasotako prestazioarentzat hasiera batean ezarritako iraute-denbora, orduan ABE prestazioa jasotzen jarraituko du. Zenbatekoa hainbat erabileratarako errenta-adierazle publikoaren hileko zenbatekoaren % 80 izango da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa beren konturako nekazaritza-langileen erregimen bereziko langileei aplikatuko zaie, baldin eta baldintza denak betetzen badituzte.

### **Prestazioa ordaintzea:**

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ordaintzen du zuzenean, edo bestela, Gizarte Segurantzaren kolaboratzailea den mutualitateak.

### ***Ikatz-meatzaritzako erregimen berezia***

Ezintasuna kontingentzia arruntek eragindakoa bada, langileari noiznahi dagokion oinarri normalizatua izango da oinarri arautzailea, aipatutako egoeraren hasieran zeukan maila profesionala kontuan hartuta.





## Prestazioa izapidetzeko aurkeztu beharreko dokumentuak

### Interesdunaren nortasuna egiaztatzea

(indarrean dagoen jatorrizko agiria):

- **Espainiarrek:**

Nortasun Agiri Nazionala (NAN)

- **Atzerritarrek:**

Pasaportea edo, beharrezkoa izanez gero, beren herrialdean indarrean dagoen nortasun-agiria eta AIZ (atzerritarren identifikazio zenbakia), Zergak Administrazio Espainiako Agentziak eskatzen baitu, ordainketak egiteko.

### Kotizazioari buruzko agiriak:

- **Erregimen orokorraren** barruan dauden langileek: Lan egindako azken enpres(et)ako ziurtagiriak.

- **Beren konturako langileek:**

Azken 2 hilabeteetako kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak.

### Datu medikoak:

- **Baja-agiriak eta baja berresteko** agiriak.
- Langileak ordainketa eskuordetu badu, enpresak egindako azken ordainketaren ondoko berrespen-agiria(k).
- Alta medikoa eman bada, **alta-agiri medikoa**.

**Lan-istripuen edota lanbide-gaixotasunen agiria**, enpresak beteta, behar izanez gero.



## Prestazioa izapidetzeko aurkeztu beharreko dokumentuak

### Lan-harremana iraungi dela egiaztatzen duten agiriak:

- Lan-harremana ABEaren lehenengo 15 egunetan iraungi bada: lan-kontratua eta luzapenak.
- Kaleratzeen kasuan: kaleratze-gutuna, adiskidetze-akta edo epaia.

### Beste agiri batzuk:

- **Lan-jardueraren egoeraren adierazpena**, langile autonomoen erregimen bereziko langileentzat soilik (salbu eta beren konturako nekazaritza-langileen erregimen berezian sartuta daudenentzat eta ekonomikoki mendeko diren langileentzat).

- **Familia-liburua** eta, hala badagokio, ardurapeko adingabeen ezgaitasun-ziurtagiria, aitortuta duten mailarekin, lan-harremana amaitzen den kasuetarako, ekarpenezko langabeziaren mugak aplikatzeko.
- **Hamar langile baino gutxiagoko enpresa bada**: Eskaera egin baino 15 egun lehenago, gutxienez, jakinarazpena egin behar da; bertan adieraziko da Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren esku ipintzen duela, enpresak hurrengo hilabete naturaleko 1. egunetik aurrera, derrigorrezko ordainketa zuzena.

**Dokumentazioa, eskabidearekin batera, Gizarte Segurantzako edozein arreta- eta informazio-zentrotan aurkez daiteke, eta, ziurtagiri digitala edo haren baliokidea edukiz gero, erregistro elektronikoko bidez ere bai.**



## Oinarrizko araudia

- 66/11/25 Agindua, Gizarte Segurantzaren kudeaketan enpresen kolaborazioa arautzen duena.
- 3158/1966 Dekretua, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko eta horietarako eskubidea edukitzeko erregelamendu nagusia onartzen duena (BOE 12/30).
- 1967ko urriaren 13ko Agindua, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko LEI aplikatzeko eta garatzeko arauak ezartzen dituena (BOE 4/11).
- 1646/1972 Dekretua, ekainaren 23koa, ekainaren 21eko 24/1972 Legea aplikatzekoa, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko prestazioei buruz (BOE 6/28).
- 53/1980 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, erregimen orokorraren 2. artikulua aldatzen duena. Artikulu horretan erregimen orokorreko prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazten da, laneko ABEari dagokionez. (BOE 1/16).
- 87/11/30 Agindua, ekintza babeslearen esparruan abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren erregimen berezi batzuk erregimen orokorrean sartzen dituena, aplikatzen eta garatzen duena. 5. artikulua (laneko ABEaren, eta artisten eta zezenketako profesionalen beste laguntza batzuen, oinarri arautzailea). (BOE, 12/11).
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzekoa (BOE 10/31- Akatsen zuzenketa: 2016/02/11).
- 1300/1995 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Gizarte Segurantzako sistemaren lan-ezintasuneko gaietan abenduaren 30eko 42/1994 Legea, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzkoa, garatzen duena (BOE 8/19).
- Abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen arteko lankidetzaren erregelamendua onartzen duena (BOE 12/12).



- 96-1-18ko Agindua, Gizarte Segurantzako sistemaren lan-ezintasunei buruzko uztailaren 21eko 1300/1995 Errege Dekretua aplikatzen eta garatzen duena (BOE 1/26, Akatsen Zuzenketa: 9/2).
- 1131/2002 Errege Dekretua, urriaren 31koa, lanaldi partzialeko kontratua duten langileen gizarte-segurantza eta erretiro partziala arautzeko dena (BOE 11/27).
- Azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Agindua, lan-istripuak jakinarazteko eredu berriak ezartzen dituena eta prozedura elektronikoen bidez egiteko aukera ematen duena (BOE 11/21 - Akatsen Zuzenketa: 12/9 - Akatsen zuzenketa: 2/7).
- Azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren sisteman lanbide-gaixotasunen koadroa onartzen duena eta jakinarazteko zein erregistratzeko irizpideak ezartzen dituena (BOE 12/19).
- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, langile autonomoaren estatutuarena (BOE 7/12).
- Abuztuaren 1eko 1382/2008 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren esparruko hainbat erregelamendu nagusi aldatzen dituena; batetik, uztailaren 4ko 18/2007 Legea, Gizarte Segurantzaren nekazaritza-erregimen bereziko langile autonomoak Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian sartzen dituena, eta, bestetik, uztailaren 11ko 20/2007 Legea, Langile Autonomoaren Estatutua, garatuta (BOE 9/10).
- Irailaren 11ko 1430/2009 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren neurrien alorreko abenduaren 4ko 40/2007 Legea erregelamenduz garatzen duena, ABE prestazioekin loturik (BOE 9/29).
- Urtarrilaren 15eko 38/2010 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen arteko elkarlanerako erregelamendua onartzen duen abenduaren 7ko 38/1995 Errege Dekretua aldatzen duena (BOE 1/16).
- Irailaren 7ko 35/2010 Legea, lan-merkatua aldatzeko premiazko neurriei buruzkoa (BOE 9/18).



## Oinarrizko araudia

- 1541/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, langile autonomoak jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legea garatzen duena (BOE 11/1).
- 625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Aldi baterako ezintasun-prozesuen zenbait kudeaketa- eta kontrol-aspektu arautzen dituena lehenengo 365 egunen barruan (BOE 7/21).
- Ekainaren 15eko ESS/1187/2015 Agindua, honako hau garatzen duena: uztailaren 18ko 625/2014 Errege Dekretua, Aldi baterako ezintasun-prozesuen zenbait kudeaketa- eta kontrol-aspektu arautzen dituena lehenengo 365 egunen barruan (BOE 6/20).

# GSINen helbide probintzialak



ARABA (Gasteiz)	Eduardo Dato, 36	01005	945 160 700
ALBACETE	Avda. de España, 27	02002	967 598 700
ALACANT	Churruca, 26	03003	965 903 100
ALMERIA	Pl. Emilio Pérez, 3	04001	950 189 500
ASTURIAS (Oviedo)	Santa Teresa de Jesús, 8-10	33007	985 666 200
AVILA	Avda. de Portugal, 4	05001	920 359 400
BADAJOS	Ronda del Pilar, 10	06002	924 216 100
BARTZELONA	Sant Antoni M. Claret, 5-11	08037	934 345 200
BIZKAIA (Bilbo)	Kale nagusia, 89	48011	944 284 500
BURGOS	Vitoria, 16	09004	947 476 600
CACERES	Avda. de España, 14	10001	927 620 000
CÁDIZ	Plaza de la Constitución, s/n	11008	956 298 600
KANTABRIA (Santander)	Avda. Calvo Sotelo, 8	39002	942 394 300
CASTELLÓ	Avda. del Mar, 6	12003	964 354 000
CEUTA	Alcalde M. Olivencia Amor, s/n	51001	956 526 800
CIUDAD REAL	Avda. Rey Santo, 2	13001	926 292 800
KORDOBA	Córdoba de Veracruz, 4	14008	957 221 000
CORUÑA, A	Ronda Camilo José Cela, 16	15009	881 909 300
CUENCA	Parque de San Julián, 7	16001	969 178 400
GIPUZKOA (Donostia)	Otamendi Anaiak 13	20014	943 483 600
GIRONA	Santa Eugènia, 40	17005	872 082 500
GRANADA	Restauradores, 1	18006	958 181 200
GUADALAJARA	Carmen, 2	19001	949 888 300
HUELVA	San José, 1-3	21002	959 492 500
HUESCA	Avda. Pirineos, 17	22004	974 294 300
BALEAR UHARTEAK (Palma)	Pere Dezcallar i Net, 3	07003	971 437 300



## GSINen helbide probintzialak

JAÉN	Fuente de Buenora, 7	23006	953 216 500
LEÓN	Avda. Padre Isla, 16	24002	987 845 700
LLEIDA	Jordi Cortada, 2	25001	973 700 700
LUGO	Ronda Músico Xosé Castiñeira, 26	27002	982 293 300
MADRIL	Serrano, 102	28006	915 661 000
MÁLAGA	Huéscar, 4	29007	952 979 000
MELILLA	General Marina, 18	52001	952 680 000
MURTZIA	Avda. Alfonso X El Sabio, 15	30008	968 382 300
NAFARROA (Iruña)	Oliveto Kondea, 7	31003	948 289 400
OURENSE	Concejo, 1	32003	988 521 000
PALENTZIA	Avda. Comunidad Europea, 16	34004	979 168 000
PALMAS, LAS	Pérez del Toro, 89	35004	928 249 024
PONTEVEDRA (Vigo)	O Grove, 4	36209	986 249 700
ERRIOXA (Logroño)	Sagasta, 2	26001	941 276 000
SALAMANCA	P.º Canalejas, 129	37001	923 296 100
SANTA CRUZ DE TENERIFE	Avda. José Manuel Guimerá, 8	38003	922 601 300
SEGOVIA	Pinar de Valsaín, 1	40005	921 414 400
SEVILLA	Sánchez Perrier, 2	41009	954 746 000
SORIA	San Benito, 17	42001	975 234 500
TARRAGONA	Rambla Nova, 84	43003	977 259 625
TERUEL	Tarazona de Aragón, 2-A	44002	978 647 100
TOLEDO	Venancio González, 5	45001	925 396 660
VALENTZIA	Bailén, 46	46007	963 176 000
VALLADOLID	Boston 4 y -6	47007	983 215 600
ZAMORA	Avda. Requejo, 23	49012	980 559 500
ZARAGOZA	Doctor Cerrada, 6	50005	976 703 400

## **Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala**

Zerbitzu Zentralak

Padre Damián kalea, 4 – 28036 Madril

Telefono-zk.: 915 688 300

**Informazioa eskatzeko telefono-zk.:**

901 16 65 65

**[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)**

**<https://sede.seg-social.gob.es>**

**<https://sede-tu.seg-social.gob.es>**





GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA  
INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL